

# Altzako udaberriko III Herri Krosa

## Altza

Urtero bezala gaur, martxoaren 23an, Altzan «Udaberriko Herri Krosa» korrituko da. Aurten ere hiru lasterketa izango dira.

Lehenengoa goizeko hamarretan hasiko da, eta 9-10 eta 11 urtetako neska-mutilek hartuko dute parte; korribide txikira bi itzuli eman beharko dira, guztitara 2.000 metro.

Bigarren lasterketa hamaiak laurden gutxitan izango da, eta 12-13 eta 14 urtetako

neska-mutilentzako izango da; hauek, ordea, korribide txikira hiru itzuli egingo dituzte, hau da, 3.000 metro.

Eta, bukatzeko, hamaikak eta erdietan, 15 urtetik 90 urte arteko gizon-emakumeak aterako dira, korribide haundira lau itzuli eginez, hau da, 8.000 metro.

Hirugarren lasterketa amaitu bezain pronto trofeo eta sariak banatuko dira. Aurten ere Auzoko elkarte, dendari eta tabernariei esker trofeo asko

dago eta ibilbide osoa betetzen duten korrikalari guztiei oroi-garri bana emango zaie.

Lasterketa guztiek «Los Boscós» auzoan beren irteeramaiera izango dute.

Antolatzaileek, hau da, «Altzakoak» K.E.-ko bazkideek, eguraldi ona espero dute, ez joan den urtean bezala. Baina iaz eguraldi txarra egin arren hiru lasterketetan 366 korrikari atera ziren. Animo, beraz!